

ToShare Begiratokiaren 2º lan ildoko batzarraren laburpena: Aberastasun kontzeptua sakonago aztertzea, BPGri lotuta

Martxoaren 28an, ostegunean, 11: 00etatik 13: 00etara, UPV / EHUko Lan Harreman eta Gizarte Lagintza Fakultateko Dekanotzan (3. solairuan) ospatuta.

Parte hartu dute: Laura Ruizek (Mugarik gabeko Ekonomilariak), Ekhi Atutxak (Euskampus Fundazioa), Asier Arcosek (UPV/EHU), Amaia Ibarrodok (Fundación Emaús), Garikoitz Otazuak (UPV/EHU) eta Ángel Elíasek (UPV/EHU). Barkamena eskatzen du Jon Morandeirak (UPV/EHU).

Bileran, igorritako gai-zerrendaren arabera, honako gaiak tratatu dira:

1) Begiratokian eman diren urratsei buruzko informazioa: dagoeneko parte hartzen duten 23 erakundeetako batzuekin harremanetan jartzea, aste honetan elkartu diren 6 lan-talde sortu, boluntario lanak egiten dituzten 12 ikasle, oraingoz euskaraz eta gaztelaniaz dagoen web-orria, baina laster ingelesez izango dena, eta buletinaren prestaketa hurrengo egunetan bidaltzeko. Era berean, web-orrian foro bat sortzeko ideia, sare sozialetan zabaldu ahal izateko.

2) Gai honi buruz bakoitzak lan egiten duenaren aurkezpen bat egiten da. Taldearen aberastasuna eta ikuspegi oso osagarriak egiaztatzen dira, sensibilizatzeko eta prestatzeko behararekin bat egiten, eta baita gai horietan sakontzen duten Gradu Amaierako Lanak egiten sustatzea.

3) Ekarpenean posibleetan dokumentu eta hainbat argitalpen partekatzen dira eta azpimarratzen da zein garrantzitsua den BPGaren hazkundeaz kritikoa izan eta sozial eta solidarioa den beste eredu ekonomikoa proposatzea.

4) Koordinazio proposamen bezala bileraren laburpen bat bidaliko da, kontaktu iraunkorra mantenduko da posta elektronikoaren bidez eta, egokitzat hartzen denean, presentziala ere.

5) Beste gai batzuetan hitz egin da UPV/EHU gaur egun garatzen ari diren hainbeste ekintzak, adibidez praktikak arloan, zein ikasteko/zerbitzu programetan, eta ere <http://4gune.eus/> estekan ikusten denez empresa desberdinekin Industria 4.0 eremuan ari direnak, osagarriak eta sinergiak sortu ahal direla.